

MERCABILBAOK 20.000 TONAKO KOMERTZIALIZAZIOA AURREIKUSTEN DU ABENDURAKO

- **Azken urteetako datuetan oinarrituta, fruten eta ortuarien sektoreak 17.000 tonako komertzializazioa aurreikusten du, eta arrainenak eta itsaskienak, 3.000 tonakoa**
- **2017ko azaroaren 30era arte, aurten Mercabilbaok 227.056 tona komertzializatu ditu, 2016ko epealdi berean baino pixka bat gehiago**
- **Egunean 3.000 ibilgailu inguru sartzen dira merkatuan, eta Gabonetan kopuru horrek gora egingo du**
- **Arrainen pabiloiko osasun ikuskaritzako laborategiak produktuen kalitatea bermatzen duten laginketak egiten ditu egunero**

Basaurin, 2017ko abenduaren 15ean.- Gabonetarako astebete baino apur bat gehiago falta denean, Mercabilbaoko sal-erosketak gora egiten du, hilabete honen hasieratik. Horrela, 2017ko abenduan 20.000 tona merkaturatuko direla aurreikusten da, atean ditugun Gabonak direla eta. Azken urteetako datuak kontuan izanda, gorako joera aurreikusten da.

Xabier Otxandiano, Bilboko Udaleko Garapen, Merkataritza eta Enplegu zinegotziak Mercabilbaoko instalazioak bisitatu ditu gaur goizean, Aitor Argote Elikadura Unitateko zuzendari gerenteak lagunduta, urteko azken hilabete hau intentsitate handiz bizi duten pabiloien egungo egoera zuzenean ezagutzeko.

Sektoreka, arrain eta itsaski sektoreak 3.000 tona inguru komertzializatzen ditu epealdi honetan, hau da, urte osoko komertzializazioaren %11. Eskari gehien duen produktua legatza da, eta horren ostean izokina, txirla, txibia eta nekora datoz. Fruten eta ortuarien kasuan, 17.000 tona inguru komertzializatzen dira, hau da, urte osoko komertzializazioaren %8.

Aitor Argotek adierazi duenez, "arrain eta itsaskietako handizkariak urte osoko fakturazioaren %15 inguru dute jokoan hilabete honetan, eta gehiago oraindik Gabonetako egunak hurbildu ahala". Datu horrek handitu egiten du itsasoko

pabiloiko tentsioa, Gabon hauetan kontsumitzaileei kalitatezko produktuak eskaintzeko helburu nagusiarekin.

Urte osoko datuek argi eta garbi erakusten dute Mercabilbaok Bizkaiko Golkoko produktu galkorren elikadura banaketaren erreferentea eta motorra izaten jarraitzen duela. 2017ko azaroaren 30era arte, aurten Mercabilbaok 227.056 tona komertzializatu ditu, 2016ko epealdi berean baino pixka bat gehiago, fruten eta ortuarien sektoreak izan duen hazkunde orokorrarengatik (%1,03), 202.904 tonara helduz, aurreko urtean baino banana gehiago sartu delako, batez ere. Arrainen eta itsaskien sektoreak, berriz, jaitsiera izan du (-%2,62) 24.152 tona merkaturatuz. Polibalenteari dagokionez, antzeko kopuruetan jarraitzen du.

Sektoreen araberako epealdi indartsuei dagokienez, azpimarratu behar da arrainetan eta itsaskietan salmenta gehieneko hilabeteak, orain arte, martxoa, apirila, maiatza eta ekaina izan direla, gehienetan gainerako hilabeteek baino salmenta gehiago izaten dituen abenduko datuen faltan. Ildo berean, frutei eta ortuari dagokienez, maiatza eta ekaina azpimarratu behar dira.

Jarduera hori guztia posible da Mercabilbaon lan egiten duten pertsonen ahaleginari esker, operadoreak, jarduera osagarrien gunea, merkataritza gunea eta bulegoak. Urte honetako azaroaren 30era arte, azpiegiturak 617.157 ibilgailu jaso ditu, 3.000 sarrera inguru egunean. Datozen Gabon jaien inguruan kopuru horrek gora egingo du, arrainen eta itsaskien sektorean, batez ere.

Jarduera ekonomikora zuzendutako 13 hektarea, ehun enpresa eta mila langile baino gehiago. Zifra horiek argi eta garbi erakusten dute Mercabilbaoko instalazioetan lan egiten duten enpresek biltzen duten jarduera eta esperientzia handia.

Are gehiago, arrainen pabiloian, egunero produktuen kalitatea bermatzen duten laginketak egiten dituen osasun ikuskaritzako laborategia dago.

Laburbilduz, gaur egun, instalazioetan hornitzen diren ostalaritzak eta merkataritzak ondo baino hobeto ezagutzen dituzte Mercabilbaoren, iparraldeko despentsa handienaren, betiko kalitatea, elikadura arloko segurtasuna eta zaporarik hoberena.

Informazio gehiago:

Eneriz Urrutxurtu Sainz

BLOK Comunicación Estratégica

637 55 83 52

eneriz@biokcomunicacion.com